

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

PARTAIDETZA ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetza

2019an partaidetza-prozesuen bitartez egingo diren proiektuak diseinatu, garatu edo eba-luatzeko dirulaguntzak emateko Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdia arautuko duten berariazko oinarriak

Herritarren partaidetzarako proiektuak

Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzua

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak, Udaleko herritarren partaidetzaren bultzatzaile den aldetik, deialdi hau landu du, Gasteizko udalerrian partaidetzaren kultura zabaltzea helburutzat harturik.

2018ko abenduaren 28an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorrak. 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn — 19. zenbakia. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebeharrak izango dituzten, dirulaguntzen publizitatea nola egin behar duten, dirulaguntzak nola justifikatu behar dituzten, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

1. Deialdiaren xedea

2019an herritarrei irekita bideratzen diren partaidetza-prozesuetatik sortzen diren gastuei aurre egiten laguntzea, horien helburuak Udalaren ildo estrategikoekin bat egiten dutelarik.

Beren edozein fasetan —diagnostikoa, gauzatzea, ebaluazioa— partaidetza-prozesu bat barne hartzen dutelarik jaso ahal izango dute dirulaguntza proiektuek.

Partaidetza-prozesuaren definizioa:

EUDEL Euskadiko Udalen Elkarrekin honela definitzen du partaidetza-prozesua: “partaidetza-zako uneak eta ekintzak ditugu gogoan (tailerrak, talde-dinamikak, bilerak, erakusketa elkarre-ragileak, foro edo lan-talde birtualak...), eta zenbait eragile edo pertsona adierazgarriren partaidetzarekin dute zerikusia, erabaki bat hartu beharra dagoen gai edo arazo bati buruzko ikuspegi edo ikuskera desberdinak eskaintzeko”.

1.1. Honako hauek ez dira deialdi honen xede —eta, beraz, ezingo da dirulaguntzarik jaso horietarako—:

- a) Entitate bateko bazkideei bakarrik zuzentzen zaizkien proiektuak.
- b) Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzen diren proiektuak.
- c) Kolektibo edo elkarte jakinentzako berariazko deialdiren batean sartzen diren proiektuak, non eta bertan metodologia parte-hartzaileetatik sortzen diren gastuak diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzen diren.

1.2. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak: Diruz lagundutako jarduera edo proiektuak garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketenean gastuztat. Gastu horien kostua ezingo da izan merkatuko baliotik gorakoa.

Hauetatik sortutako gastuetarako emango da dirulaguntza:

a) Komunikazio-kanpainak: partaidetza-prozesuari lotutako prentsa, irratia, sareak, kartelak, inprenta...

b) Dinamizazioak: partaidetza-metodologiak bideratzeko langile-kontratazioak.

c) Dinamizazio-saioetarako espazio-erreserbak. Gizarte-etxeetako espazioak erreserbatzen direlarik —baldin eta erabilgarri badaude—, espazio horien erabilera arautzen duen 7.11 ordenantza fiskaleko zortzigarren tarifa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira eskatzaileak —ordenantzan bertan finkatuta dagoen prozeduraren bitartez—, dirulaguntza honen xede den jardueraren bat burutzeko bada.

d) Material suntsikorra erabiltzetik sortzen diren gastuak eta ekintza programatuetatik sortzen diren bestelako gastuak.

e) Proiektuan parte hartzeko gonbita egin zaien adituen minuta, bidaia eta dietetatik sortzen diren gastuak.

1.3. Ez dira onartutako elkarte edo organizazioko kideen dieta edo bidaia-gastuen fakturak.

1.4. Baldin eta aurkezten den aurrekontuan diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, kendu egingo dira aurkeztutako aurrekontutik.

1.5. Elkarte onuradunak azkenean gauzatzen duen aurrekontua aurkeztu duena eta onartu zaiona baino txikiagoa egokitzen bada, dagokion proportzioan murriztuko zaio dirulaguntza. Dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea ekarri ahal izango du horrek berekin.

1.6. Era berean, ezingo dira sartu eskabidea egiten duen pertsona edo entitatearen ohiko funtzionamenduaren ondorio diren zeharkako gastuak.

2. Aurrekontu-kreditua

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak 2019ko udal aurrekontuetako 1822 9242 48014 partidako —herritarrentzako partaidetza-proiektuak— aurrekontu-kredituaren kontura joango dira —gehienez 24.000,00 eurokoa da horren zuzkidura—.

3. Eskatzaileak

— Jarduera-eremu Gasteizko udalerrria duten irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko nahiz entitateak.

— Pertsona fisikoen kasuan, ezinbestekoa izango da gutxienez hiru adindunek osatutako kolektiboa izatea (II. eranskina. Kolektiboak).

4. Informazioa eta dokumentazioa

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak informazioa eta aholkularitza eskainiko dizkie deialdi honen barruan dirulaguntza eskatu nahi duten elkarte, kolektibo eta pertsoneri. 945 161687 telefonora deituz edo participacion-partehartzea@vitoria-gasteiz.org helbidera idatziz egin ahalko dira kontsultak.

5. Aurkezteko epea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik eta 2019ko azaroaren 15era bitartean aurkeztu ahal izango dira proiektuak, edo kreditua agortu bitartean.

6. Tramitazioa

Eskabidearekin batera, oinarri hauetan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza-eskabide orokorra.
- Proiektua, I. eranskinetako gidoiaren arabera.
- IFZren fotokopia.
- Entitate eskatzaileen ibilbidearen laburpena.
- Banakoen kasuan, taldea edo kolektiboa osatzen duten pertsonen nortasun-agirien fotokopiak, eta II. eranskina —Kolektiboak—.

7. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauek hartuko ditu aintzat Gasteizko Udalak eskabidea egiten duten entitateei dirulaguntza eman ala ez erabakitzeko nahiz lehentasunak finkatzeko —aldez aurreko baldintza izango da bideragarritasuna—:

Irizpideak:

7.1. Antzemandako premien, finkatutako helburuen, proposatutako ekintzen eta egindako aurrekontuen arteko koherentzia: gehienez 24 puntu.

7.2. Partaidetza-mailak: gehienez 10 puntu:

- Kontsulta: 2 puntu.
- Debatea: 2 puntu.
- Proposamena: 2 puntu.
- Partaidetza-prozesuan erabakitakoa gauzatzea: 4 puntu.

7.3. Metodologia: azalpena, partaidetza-prozesua nola garatuko den, mugak eta joko-arauak barne, eta konpromisoen zehaztapena: gehienez 5 puntu.

7.4. Jarraipena eta ebaluazioa: gehienez 5 puntu.

7.5. Parte-hartzaileak: gehienez 14 puntu:

- Entitate sustatzailetik kanpoko agenteen partaidetza egiaztatzen badu: gehienez 4 puntu.
- Aniztasuna bilatzen du, jarrera eta diskurtso desberdinen arteko topaketa: gehienez 2 puntu.

– Sareko lana: hainbat entitateren artean aurkezten da proiektua: gehienez 3 puntu.

– Elkarlan-ekintzaren bat egitea baren hartzen du: gehienez 5 puntu.

7.6. Dinamika parte-hartzaileak barne hartzen ditu: gehienez 12 puntu:

- Mahai-inguruak, word kafea, gogoeta-lantegiak, foroak, erakusketak...

7.7. Komunikazio-plana: gehienez 10 puntu.

7.8. Entitateak proiekturako jartzen dituen finantza-baliabideak, eta eskatutakoaren proportzioa, beste bitarteko batzuen aldean (gehienez 8 puntu):

- Ehuneko 10era arte, gehienez 2.
- Ehuneko 20ra arte, gehienez 4.
- Ehuneko 30era arte, gehienez 6.
- Ehuneko 40ra arte, gehienez 8.

7.9. Programatutako jardueretan euskararen erabilera bultzatzea: gehienez 2 puntu.

7.10. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea: gehienez 2 puntu:

- Emakumeen partaidetza bultzatzeko ekintzak, puntu 1.
- Diagnostikoan, jardueretan eta bestetan datu bereziak biltzea: puntu 1.

7.11. Bizikidetzeta eta aniztasuna bultzatzea: gehienez 2 puntu:

- Parte hartuko dutenak adin, genero, jatorri eta testuinguru sozial desberdinetakoak dira.

7.12. Eragin eta proiektio soziala: gehienez 6 puntu.

- Proposatutako ekintzek onura dakarkieten pertsona eta kolektiboak.

8. Dirulaguntza jaso ahal izateko programa bakoitzak gutxienez lortu behar duen puntu-kopurua

Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira.

9. Proiektu bakoitzeko gehieneko dirulaguntza

9.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan lau mila eta bostehun eurotik (4.500,00 euro) gorakoa proiektu bakoitzeko —aurrekontuaren ehuneko 100era arte finantzatu ahal izango da—.

9.2. Baremo hauek kontuan izanik kalkulatu da dirulaguntzaren zenbatekoa:

– Onartutako aurrekontuaren ehuneko 100era arte esleipen-irizpideen arabera 80 puntutik 100era bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

– Onartutako aurrekontuaren ehuneko 90era arte esleipen-irizpideen arabera 60 puntutik 79ra bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

– Onartutako aurrekontuaren ehuneko 80ra arte esleipen-irizpideen arabera 50 puntutik 59ra bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

10. Ebazpena

Proiektuak balioetsi ahala emango dira dirulaguntzak, Partaidetza eta Gizarte Etxeen zinegotziak sinatutako ebazpenen bitartez, harik eta aurrekontua agortu arte.

Horretarako, Tokiko Gobernu Batzarrak, deialdia onartu eta ebazteko organo eskuduna den aldetik, Partaidetza eta Gizarte-etxeen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten du eskumen hori.

11. Dirulaguntza ordaintzea:

Dirulaguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, aldez aurreko ordainketa gisa, deialdia ebatzi eta interesdunei jakinarazi ondoren, inongo bermerik jartzeko beharrik gabe.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura ebatzi delarik zordun bada ere.

12. Dirulaguntza justifikatzeko modua

2019ko dirulaguntzen oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera.

Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:

a) Egindako proiektuaren azalpen-txostena, lortutako emaitzen balioespena barne.

– Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

b) Jardueren kostua justifikatzen duen oroitidazki ekonomikoa:

– Jatorrizko fakturak eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.

– Behar diren eranskinak.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, partaidetza-prozesua bukatzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 3an

Partaidetzaren eta Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

I. eranskina: Proiektua egiteko gidioa
Anexo I: Guión para hacer un proyecto

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación y Centros Cívicos

Telefona - Teléfono: 945 16 16 87
informacion@vitoria-gasteiz.org

PARTAIDETZA-PROIEKTUA LANTZEKO PROPOSATZEN DEN GIDIOA
GUIÓN PROPUESTO PARA ELABORAR EL PROYECTO DE PARTICIPACIÓN

<p>OINARRIAK FUNDAMENTACIÓN</p>	<p>Nor gara? Zergatik egin nahi dugu partaidetza-prozesu bat? Zein da hobetu nahi dugun arazoa edo egoera? <i>¿Quiénes somos?</i> <i>¿Por qué queremos hacer un proceso participativo?</i> <i>¿Cuál es el problema o situación que queremos mejorar?</i></p>
<p>HELBURUAK OBJETIVOS</p>	<p>Zer lortu nahi dugu partaidetza-prozesuarekin? <i>¿Qué queremos conseguir con el proceso participativo?</i></p>
<p>PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA ETA METODOLOGIA DESCRIPCIÓN DEL PROYECTO Y METODOLOGÍA</p>	<p>Azalpena, partaidetza-prozesua nola garatuko den. Adierazi zein fasetara zuzenduta dagoen: diagnostikoa, gauzatzea, ebaluazioa. <i>Explicación de cómo se va a desarrollar el proceso participativo. Indicar a qué fase o fases va dirigido: diagnóstico, ejecución o evaluación.</i></p>
<p>PORTE-HARTZAILEAK PARTICIPANTES</p>	<p>Nork parte hartuko du? Profil jakineko zein entitate, kolektibo edo pertsona gonbidatuko dira, ikuspegi eta perspektiba desberdinen integrazioa ziurtatzeko? <i>¿Quién va a participar?</i> <i>¿A qué entidades/colectivos/personas con un perfil determinado se va a invitar para asegurar la pluralidad de visiones y perspectivas diferentes?</i></p>
<p>KOMUNIKAZIOA ETA IKUSGAI EGITEA COMUNICACIÓN Y VISIBILIZACIÓN</p>	<p>Proiektuaren, jardueren eta ebaluazioaren zabalkunderako elementu edo sistemak. Nola egingo den prozesuaren konklusioen itzulua. Zein bide baliatuko dira prozesuan parte hartzen duten pertsonen arteko barne-komunikaziorako? Eta, kanpo-komunikaziorako? <i>Difusión del proyecto, de las actividades y de la evaluación. Cómo se va a realizar la devolución de las conclusiones del proceso. ¿Qué vías se van a utilizar para realizar la comunicación interna entre las personas que participan en el proceso? Y, ¿para la comunicación externa?</i></p>
<p>PARTAIDETZA-PROZESUKO JARDUERAK ACTIVIDADES DEL PROCESO PARTICIPATIVO</p>	<p>Jarduera horien egutegia. Egingo diren lekua. Jardueren mota <i>Calendario de dichas actividades. Lugar donde se van a realizar. Tipo de actividades.</i></p>



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

I. eranskina: Proiektua egiteko gidoia

Anexo I: Guion para hacer un proyecto

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación y Centros Cívicos

Telefona - Teléfono: 945 16 16 87
informacion@vitoria-gasteiz.org

<p>BALIABIDE MATERIALAK, GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK <i>RECURSOS MATERIALES, HUMANOS Y ECONÓMICOS</i></p>	<p>Entitateak duen pertsonala. Saioak dinamizatzeko berriazko pertsonalik izango den adierazi. Gastuen serenad. Diru-laguntzen ildo honetan eskatzen den kopuruaren aurrekontu banakatua (publizitatea eta komunikazioa, dinamizatzeko-lanak, espazioak, materialak edo beste alokatzea...) Diru-sarreraren zerrenda, eskatu diren, aurreikusten diren edo jaso diren bestelako diru-laguntza edo laguntza ekonomikoak barne. <i>Personal con el que cuenta la entidad. Indicar si se va a contar con personal específico para dinamizar las sesiones.</i> <i>Relación de gastos. Presupuesto desglosado de la cantidad que se solicita para esta línea de subvención (publicidad y comunicación, dinimizaciones, alquiler de espacios, materiales...)</i> <i>Relación de ingresos incluidas otras subvenciones o ayudas económicas demandadas, previstas y/o recibidas.</i></p>
<p>PARTAIDETZA-PROZESUKO KONPROMISOAK <i>COMPROMISOS DEL PROCESO PARTICIPATIVO</i></p>	<p>Nola hartuko dira erabakiak? Partaidetza-prozesuaren konklusioak. Nola partekatuko dira konklusio horiek? <i>¿Cómo se van a tomar las decisiones?</i> <i>Conclusiones del proceso participativo. ¿Cómo se van a compartir esas conclusiones?</i></p>
<p>EBALUAZIOA <i>EVALUACIÓN</i></p>	<p>Emaitzen eta partaidetza-prozesuaren ebaluazioa egiteko adierazleak. Inkestak, elkarrizketak, ebaluazio-lantegiak... Inpaktua. <i>Indicadores de evaluación de los resultados y del proceso participativo.</i> <i>Encuestas, entrevistas, talleres de evaluación...</i> <i>Impacto.</i></p>



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org

II. eranskina: Kolektiboak
Anexo II: Colectivos

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación y Centros Cívicos

Telefona - Teléfono: 945 16 16 87
informacion@vitoria-gasteiz.org

KOLEKTIBOAK OSATZEN DUTENEN ZERRENDA ETA ARDURADUNAREN IZENDAPENA
RELACIÓN DE PERSONAS QUE FORMAN EL COLECTIVO Y DESIGNACIÓN DE LA PERSONA RESPONSABLE

<p>Behean sinatzen dutenek AITORTZEN DUTE:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kolektibo honetako kideak direla: - Kolektiboaren arduraduna honako hau dela:, IFZ: - Kolektiboak barne-funtzionamendu demokratikoa duela. - Kolektiboko kide guztiak maila berean konprometitzen direla diru-laguntza eskatzea ekarri duen proiektua gauzatzeari dagokionez (hala ez bada, zehaztu partaidetza-ehunekoak). - Kolektiboko kideek zerga-betebeharrak egunean dituztela, baita Gizarte Segurantzarekikoak ere. - Kolektiboko kideek ez dutela parte hartu Gasteizko Udalaren laguntza edo diru-laguntzak artean justifikatu gabe dituzten beste elkarte edo kolektibo batzuetan. 	<p><i>Las personas abajo firmantes DECLARAN:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Ser miembros del colectivo..... - Que la persona responsable de este colectivo es:, con NIF..... - Que el colectivo tiene funcionamiento interno democrático. - Que todas las personas que forman parte del colectivo se comprometen por igual en la ejecución del proyecto para el que se solicita subvención (en caso contrario, especificar porcentaje de participación). - Que las personas del colectivo están al corriente de las obligaciones tributarias, así como con la Seguridad Social. - Que las personas que forman parte de este colectivo no han participado en otras asociaciones o colectivos que tengan pendientes de justificación ayudas o subvenciones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. 	
<p>IZEN – DEITURAK NOMBRE Y APELLIDOS</p>	<p>IFZ NIF</p>	<p>SINADURA FIRMA</p>



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org

II. eranskina: Kolektiboak
Anexo II: Colectivos

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación y Centros Cívicos

Telefonoa - Teléfono: 945 16 16 87
informacion@vitoria-gasteiz.org

(KOLEKTIBOKO KIDE GUZTIEN SINADURAK / FIRMA DE TODAS LAS PERSONAS DEL COLECTIVO)

Vitoria-Gasteizen, 20..koren(e)an

En Vitoria-Gasteiz, ade.....20..

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrta. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 38/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Diru-laguntzel buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOko 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzailleak <i>Destinatarios</i>	Datu pertsonalik ez zale lagako hirugarrenei. <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak irau bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutako aplikatuko zale datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ez ezatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>